

# ***DIAGNOSTIKO PERIODONTALA***

## ***OINARRIZKO KONTZEPTUAK :***

### ***IRAKASKUNTZA GIDA***

#### ***Egileak:***

García-De La Fuente AM, Estefanía-Fresco R, Aguirre-Zorzano LA

OCW-2016



## DESKRIBAPENA

Gaixotasun periodontala (GP) hanturazko patologia kronikoa da eta hortzak inguratzen dioten ehunei eragiten die. Gaixotasun periodontalak oso ohikoak dira eta Europan arazo larrian bilakatu dira. Haien prebalentzia oso ezberdina da herrialdea zein den, eta oszilatzen da %44etatik (Suedian, Espainian eta Suitzan) %100-era arte (*König et al 2010*). Adituen ustez, periodontitisa Europako osasun publikoetatik arazo larrienetarikoa da. Patologia kroniko honek ez du soilik ondorio mugaturik eragiten (hortz-galera, mastekatzeko gaitasuna murriztuz, arazo estetikoak...), baizik eta ondorio sistemikorik. Dirudienez, periodontitisaren eta gaixotasun sistemikoen artean erlazio handia dago, besteak beste, gaixotasun kardiobaskularra, diabetesa, artritis erreumatoidea, sindrome metabolikoa.... (*Tonetti & Dyke 2013, Linden et al 2013*)

Gaur Egun, historia klinikoa, aho-azterketa eta miaketa periodontala, eta azterketa erradiografikoa ezinbestekoak dira gaixotasun periodontalak identifikatzeko eta diagnostikatzeko. Baliabide horiei esker diagnostikoa, diagnostiko diferentziala, pronostikoa eta tratamendu-plana ezartzeko gai izango gara.

Ikasgai honetan, aspektu teorikoak jorratzeko teoriko-gai bakoitzaren azalpen bat garatuko da. Gai guztiak ikasi eta gero, ariketa batzuk proposatzen ditugu ikasitakoa praktikan jartzeko.

Gomendatzen da gaiak ikasi ondoren, ariketa praktikoak egitea eduki teorikoak garatzeko eta finkatzeko. Ariketak hauek egiteko metodologia aktiboak (kasu-ebazpenetan oinarrituak) erabiliko dira.

Bukatzeko, autoebaluaketarako test baten bidez ikasleak bere ezaguera maila neurtu ahal izango du.

Ikastaro hau Odontologia Graduko ikasleentzat erabilgarria izango da, periodontoko prozesu patologikoak identifikatzeko.. Gainera, antolatuta dagoen moduagatik osasun zientzietako beste Graduetan interesgarria izan daiteke.

Horrez gain, Europako Goi Hezkuntza euren ikaskuntza prozesuan proposatzen du aurrez aurreko eta urruneko irakaskuntzako ECTS kredituak egin behar dituztela. Proposamen honek aukera emango dio ikasleari beren urruneko (ez-presentziala) prestakuntzarako materiala osatzeko.

## HELBURUAK

Ikasgaiaren helburu nagusia hurrengoa da: ikasleak oinarrizko ezagutzak lortzea, jakiteko nola egin behar duen diagnostiko periodontala eta nola erabili gaur egun gure artean daukagun baliabideak diagnostiko zuzena eta egokia lortzeko.

Horretarako ikasleak hurrengo **helburu zehatzak** lortzeko gai izango da:

1. Periodontoko gaixotasunen oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta finkatzea.
2. Gaur egungo gaixotasun periodontalaren sailkapena ezagutzea eta finkatzea.
3. Gaixotasun periodontalaren diagnostiko klinikoa egiteko gai izatea.
4. Gaixotasun periodontalaren diagnostiko erradiografikoa egiteko gai izatea.
5. Gaixotasun periodontalaren diagnostiko mikrobiologikoa egiteko gai izatea.
6. Gaixotasun periodontalaren diagnostiko genetikoa egiteko gai izatea.
7. Azterketa guztiak egin eta gero azken-diagnostikoa eta diagnostiko diferentziala egiteko gai izatea.

## GAITASUNAK:

OROKORRA	Aho-azterketa oso bat egiten jakitea (bidezko proba erradiologiko eta miaketa-proba osagarriak barne), eta erreferentzia kliniko egokiak lortzea
OROKORRA	Gaixotasunaren prozesu orokorrak ezagutzea (eta, horien artean, infekzioa, inflamazioa, immunitate-sistemaren alterazioak, endekapena, neoplasia, alterazio metabolikoak eta desoreka genetikoak)
OROKORRA	Periodontoko ehunen patologian terapeutikarik egokiena garatzea, eta pronostiko eta diagnostikoa ezartzea.
OROKORRA	Diagnostiko eta tratamendu-plana egokia ezartzeko historia klinikoa eta aho-azterketa interpretatzeko gai izatea
OROKORRA	Diagnostiko eta tratamendu-plana egokia ezartzeko, erradiografiak hartzeko eta praktika odontologikoan garrantzitsuak diren irudian oinarrituta bestelako prozedurak interpretatzeko gai izatea
OROKORRA	Diagnostiko diferentziala eta azken-diagnostikoa egitea
OROKORRA	Modu koherenteren ezaguera horiek erabiltzea kasu klinikoak ebazteko
OROKORRA	Periodontzia arloan autoikaskuntzaren aldeko jarrera erakustea.

## **NORI ZUZENDUTA DAGO IKASGAIA. AURRE BALDINTZAK**

Ikastaro hau Odontologia Graduko ikasleentzat erabilgarria izango da, periodontoko prozesu patologikoak identifikatzeko.. Gainera, antolatuta dagoen moduagatik osasun zientzietako beste Graduetan interesgarria izan daiteke.

Arazo gehiegirik gabe egiteko, komenigarria izango litzateke, besteak beste, "Anatomia", "Biologia", "Histologia", "Mikrobiologia", "Immunologia", eta "Farmakologia"-ko oinarrizko ezagutzak izatea

## **PROGRAMA/ GAIA-ZERRENDA**

### **Oinarri teorikoak**

1. Gaixotasun periodontalaren sarrera.
2. Gaixotasun periodontalaren gaur egungo sailkapena.
3. Diagnostiko periodontalaren sarrera.
4. Diagnostiko klinikoa.
5. Diagnostiko erradiografikoa.
6. Diagnostiko mikrobiologikoa.
7. Diagnostiko genetikoa.
8. Gingibitisaren eta Periodontitisaren arteko diagnostiko diferentziala.
9. Periodontitis Kronikoaren eta Periodontitis Agresiboaren arteko diagnostiko diferentziala.
10. Gingibitisaren, Periodontitisaren eta Gaixotasun Periodontal Akutuaren arteko diagnostiko diferentziala.

### **Praktikak**

1. Ikasi Historia klinikoa eta Periodontograma nola egin behar den.
2. Ikasi nola azterketa erradiografikoa egin behar den.
3. Kasu klinikoak

### **Autoebaluaketarako testa**

### **Bibliografia**

## **METODOLOGIA**

1. Gai bakoitzeko materialak irakurri, aspektu teorikoak jorratzeko.
2. Irakurritakotik garrantzitsuena, azpimarratu eta eskematikoki berridatzi.
3. Ikasleak eskema bat egin behar izango du, gaiaren puntu garrantzitsuenak ulertu dituela jakiteko.
4. Behin gai guztiak ikasita, ariketa batzuk proposatzen ditugu gai desberdinetan ikasitakoa praktikan jartzeko.
5. Behin ezagumendu teorikoak landuta, planteatzen diren autoebaluaketarako ariketak egin. Lehenengo aldiz egiten direnean emaitzak ez begiratzea gomendatzen da.
6. Emaitzak begiratu, eta egiaztatu ariketak ondo egin diren.
7. Akatsak egon diren gaietan, hauek arreta handiz berrirakurtzea komenigarria izango da, erantzun zuzenak aurkitzeko helburuarekin.
8. Oraindik zalantzak egotekotan (edo gairen batean sakondu nahi bada) gomendatutako bibliografia erabili.



## **KRONOGRAMA**

Ikastaro hau ondo jarraitzeko lehenengo gai teorikoak irakurtzea gomendatzen da. Gai teoriko bakoitza lantzeko 5 ordu behar dira, bai gaia irakurtzeko eta ikasteko; horrez gain, gomendatuko bibliografia irakurtzea gomendagarria da ikastaroa ahalik eta ondoen egiteko.

Ondoren, praktikak eta kasu klinikoak egin ahal dira. Planteatzen diren ariketa praktikoak eta kasu klinikoak ondo egiteko gai teorikoetan azaldu dena landuta egon behar da. Praktika horiek egiteko 6 ordu behar izango dituzte ikasleek.

Bukatzeko, autoebaluaketarako testa egin ahal da, bakoitzak bere ezaguera maila neurtzeko.

## **BIBLIOGRAFIA**

König, J., Holtfreter, B., & Kocher, T. (2010). Periodontal health in Europe: future trends based on treatment needs and the provision of periodontal services—position paper 1. *European Journal of Dental Education*, 14(s1), 4-24.

Linden, G. J., Lyons, A., & Scannapieco, F. A. (2013). Periodontal systemic associations: review of the evidence. *Journal of clinical periodontology*, 40(s14).

Tonetti, M. S., & Dyke, T. E. (2013). Periodontitis and atherosclerotic cardiovascular disease: consensus report of the Joint EFP/AAP Workshop on Periodontitis and Systemic Diseases. *Journal of clinical periodontology*, 40(s14).